# 2

KOBRATZEN — COBRANDO

# U N I T A T E A

HELBURUA
Kontua eskatzen diotenean ulertzea eta kobratzea.

OBJETIVO
Entender cuando se le pide la cuenta y realizar el cobro.


**2.1.** Elkarrizketa

**2.2.** Ariketak

**2.3.** Azalpenak

**2.4.** Hiztegia

**2.5.** Errepasoa

**2.6.** Badakizu?

**2.7.** Erantzunak

**2.1.** Diálogo

**2.2.** Ejercicios

**2.3.** Explicaciones

**2.4.** Diccionario

**2.5.** Repaso

**2.6.** ¿Sabías que...?

**2.7.** Soluciones

## 2.1. Elkarrizketa

*Komiki honetako elkarrizketa CDan grabatuta izango duzu. Entzun eta ikasi.*
*Audio-pasartea: CDaren 3. pista.*



**Eider:** *Aizu, barkatu, kobratuko al didazu, mesedez?*
**Zerbitzaria:** *Bai, banoa, segituan ekarriko dizut kontua.*



**Eider:** *Zenbat da?*
**Zerbitzaria:** *Ea, bada, bi garagardo eta bi bokadilo... zortzi euro eta hirurogeita hamar zentimo.*




**Eider:** *Tori. Barkatu, baina ez daukat kanbiorik.*
**Zerbitzaria:** *Lasai, berehala ekarriko dizkizut bueltak.*



**Zerbitzaria:** *Hartu, eta eskerrik asko.*
**Eider:** *Zuri. Agur!*

## 2.1. Diálogo

*El diálogo de estas viñetas lo tienes grabado en el CD. Escucha y apréndelo.*
*Audio: Pista 3 CD.*



**Eider:** *Oye, perdona, ¿me cobras por favor?*
**Camarero:** *Sí, ya voy, enseguida te traigo la cuenta.*



**Eider:** *¿Cuánto es?*
**Camarero:** *A ver, dos cervezas y dos bocadillos... ocho euros y setenta céntimos.*




**Eider:** *Toma. Perdona, pero no tengo cambios.*
**Camarero:** *Tranquila, enseguida te traigo las vueltas.*



**Camarero:** *Toma, gracias.*
**Eider:** *A tí.¡Adiós!*

## 2.2. Ariketak • Ejercicios

**1. Ariketa**

**Entzun berriro elkarrizketa eta ordenatu esaldiak batetik bostera.**

Escucha de nuevo el diálogo y ordena las frases del 1 al 5.

*Audio-pasartea: CDaren 3. pista/Audio: Pista 3 CD.*

*... Bai, segituan egingo dizut kontua.*

*... Hartu, eta eskerrik asko!*

*... Aizu, barkatu, kobratuko didazu, mesedez?*

*... Ea, bada, bi garagardo eta bi bokadilo... 8,70 €.*

*... Zuri. Agur!*

**2. Ariketa**

**Lotu itzazu irudiak eta balioak.**

Une las imágenes con su valor.

**1: BAT, 2: BI, 3: HIRU, 5:BOST, 10: HAMAR, 20: HOGEI, 50: BERROGEITA HAMAR, 100: EHUN, 200: BERREHUN, 500: BOSTEHUN.**




- [E] Zentimo bat
- [ ] Bi zentimo
- [ ] Bost zentimo
- [ ] Hamar zentimo
- [ ] Hogei zentimo
- [ ] Berrogeita hamar zentimo
- [ ] Euro bat
- [ ] Bi euro
- [ ] Bost euro
- [ ] Hamar euro
- [ ] Hogei euro
- [ ] Berrogeita hamar euro
- [ ] Ehun euro
- [ ] Berrehun euro
- [ ] Bostehun euro

## 2.2. Ariketak • Ejercicios

3

**3. Ariketa**

**Atera kontuak eta idatzi emaitza letraz.**

Saca la cuenta y escribe con letras los resultados.

* *Oharra: Ariketa hau egin ahal izateko, aurrena zenbakien azalpenari begiratu beharko diozu.*

* *Nota: Para poder hacer este ejercicio, deberás mirar primero la explicación sobre los números.*

**a.** bi bokadilo: 7 €
freskagarri bat: 1,55 €
garagardo bat: 1,35 €

Zenbat da? . . . . . . . . . . . . . . . . .

**b.** lau beltz berezi 2,40 €
bi txuri 0,80 €
hiru ganba 3,60 €

Zenbat da? . . . . . . . . . . . . . . . . .

**c.** bi txorizo egosi 2,40 €
bi salda 2,30 €
hiru txakoli 2 €
bitter bat 1,70 €

Zenbat da? . . . . . . . . . . . . . . . . .

4

**4. Ariketa**

**Lotu galderak eta erantzunak.**

Une cada pregunta con su respuesta.

**1.** Kobratuko didazu?
**2.** Zenbat da?
**3.** Eskerrik asko!
**4.** Zer hartu duzue?

**a.** Bi euro dira.
**b.** Zuri.
**c.** Bai, segituan kobratuko dizut.
**d.** Bi txuri berezi.

## 2.3. Azalpenak

### A. Zerbait eskatzeko

**Euskaraz esaldiaren ordena gaztelaniazkoaren alderantzizkoa da:**

- Galdera: Kontua / emango didazu / diguzu?
  Kontua ekarriko didazu / diguzu?
- Erantzuna: Bai, segituan emango dizut / dizuet.
  Bai ekarriko dizut /dizuet.

### B. Eskerrak emateko

**Eskerrik asko!** **Mila esker!**

- Erantzunak: **Zuri.**
  **Ez horregatik!**

### C. Kopurua galdetzeko

- Galdera:
  Zenbat da?
  Zenbat zor dizut?
  Zenbat eman behar dizut?
- Erantzuna:
  35 € dira.
  35 € zor dizkidazu.
  35 € eman behar dizkidazu.

### D. Zenbakiak euskaraz

1 bat, 2 bi, 3 hiru, 4 lau, 5 bost, 6 sei, 7 zazpi, 8 zortzi, 9 bederatzi, 10 hamar

11 hamaika
12 hamabi
13 hamairu
14 hamalau
15 hamabost
16 hamasei
17 hamazazpi
18 hemezortzi
19 hemeretzi
20 hogei
21 hogeita bat
22 hogeita bi

30 hogeita hamar

31 hogeita hamaika
32 hogeita hamabi
40 berrogei
41 berrogeita bat
42 berrogeita bi

50 berrogeita hamar
51 berrogeita hamaika
52 berrogeita hamabi

60 hirurogei
61 hirurogeita bat
62 hirurogeita bi

70 hirurogeita hamar

71 hirurogeita hamaika
72 hirurogeita hamabi

80 laurogei
81 laurogeita bat
82 laurogeita bi

90 laurogeita hamar
91 laurogeita hamaika
92 laurogeita hamabi

300 hirurehun
400 laurehun
500 bostehun

### E. Esaldiak

- Ez daukat kanbiorik.
- Banoa!
- Zer hartu duzue?
- Zer hartu duzu?
- Zer izan da?

## 2.3. Explicaciones

### A. Para pedir algo

En este caso el orden de la frase en euskera es inverso al del castellano.

- Pregunta: Me das / Nos das la cuenta?
  Me traes / Nos traes la cuenta?
- Respuesta: Sí, enseguida te la doy / os la doy.
  Te la traigo / os la traigo.

### B. Para dar las gracias

Podemos utilizar cualquiera de estas dos frases:
**Eskerrik asko! Mila esker!**
Para contestar también se usan indistintamente:
**Zuri** (a tí) o **Ez horregatik!** (no hay de qué)

### C. Para preguntar la cantidad

Hay diferentes formas de preguntarlo.
Aunque la más común es: **Zenbat da?** (¿cuánto es?)
También se utilizan estas otras: **Zenbat zor dizut?** (¿cuánto te debo?)
o **Zenbat eman behar dizut?** (¿cuánto te doy?)

Lo mismo ocurre con la respuesta:

- **35 € dira** (son 35 €)
- **35 € zor dizkidazu** (me debes 35 €)
- **35 € eman behar dizkidazu** (me debes 35 €)

### D. Los números en euskera:

*(Mira en la página 38)*

### E. Algunas frases

- No tengo cambios.
- ¡Ya voy!
- ¿Qué habéis tomado?
- ¿Qué has tomado?
- ¿Qué ha sido?

## 2.4. Hiztegia — Diccionario

| ADITZAK | VERBOS |
|---|---|
| Aizu | Oye |
| Banoa | Ya voy |
| Daude | Están |
| Ekarri | Traer |
| Eman | Dar |
| Esan | Decir |
| Eseri | Sentarse |
| Eserita | Sentado/a |
| Itxaron | Esperar |
| Kobratu | Cobrar |
| Ordaindu | Pagar |
| Tori | Toma |
| Zer hartu duzu | Qué has tomado |
| Zer hartu duzue | Qué habéis tomado |

| DIRUA | DINERO |
|---|---|
| Billete | Billete |
| Buelta; Gainerako | Vuelta |
| Diru | Dinero |
| Garesti | Caro |
| Juxtu | Justo |
| Kanbio | Cambio |
| Kontu | Cuenta |
| Merke | Barato |
| Txanpon | Moneda |
| Zentimo | Céntimo |

## 2.4. Hiztegia — Diccionario

| Hiztegia | Diccionario |
| --- | --- |
| **JANARIAK ETA EDARIAK** | **COMIDAS Y BEBIDAS** |
| Beltz berezi | Tinto especial |
| Biter | Bitter |
| Freskagarri | Refresco |
| Garagardo | Cerveza |
| Gorri berezi | Clarete especial |
| Ogitarteko; Otarteko | Bocadillo |
| Sagar | Manzana |
| Salda | Caldo |
| Txuri berezi | Blanco especial |
| Zumo | Zumo |
| **BESTERIK** | **OTROS** |
| Badaukat | Ya tengo |
| Badaukazu | Ya tienes |
| Badaukazue | Ya tenéis |
| Baina | Pero |
| Barkatu | Perdón |
| Berehala | Enseguida |
| Daude | Están |
| Ea, bada | Vamos a ver; A ver |
| Eskerrik asko | Muchas gracias |
| Ez daukat | No tengo |
| Ez daukazu | No tienes |
| Ez horregatik | No hay por qué |
| Globo; Bunbuilo | Globo; Bocadillo (cómic, tebeo...) |
| Mahaian | En la mesa |
| Mila esker | Mil gracias |
| Segituan | Enseguida |
| Zenbat | Cuánto |
| Zerbitzari | Camarero/a |
| Zuei | A vosotros |
| Zuri | A tí |

## 2.5. Errepasoa • Repaso

**A. Saia zaitez idazten CDan entzuten dituzun zenbakiak.**
Trata de escribir los números que escuchas en el CD.
*Audio-pasartea: CDaren 4. pista/Audio: Pista 4 CD.*

1. ......1,75......
2. ...............
3. ...............
4. ...............
5. ...............
6. ...............

**B. Esaldiak lotu.**
**Erderazko esaldiak bere itzulpenarekin lotu.**
Une las frases en castellano con sus traducciones.

**1.** ¿Cuánto te debo?
**2.** La cuenta, por favor.
**3.** No tengo cambios.
**4.** Toma las vueltas.
**5.** Son 18 euros.

**a.** Ez daukat kanbiorik.
**b.** Hemezortzi euro dira.
**c.** Zenbat zor dizut?
**d.** Tori bueltak.
**e.** Kontua, mesedez.

**C. Sartu esaldiak dagokien globoan.**
Escribe las frases en los bocadillos que correspondan.





. Kobratuko didazu?
. Bai, segituan.

. Zenbat da?
. Lau euro eta hogei zentimo.

## 2.6. Badakizu? • ¿Sabías qué...?

"Potea" tabernaz taberna ibiltzeko lagun koadrila batek adostuta eta denek kopuru bera jartzen duten dirua da. Koadrila batzuetan, beti pertsona berak eramaten du, eta, beste batzuetan, txandaka egiten da.
Ohitura zabaldua izan arren, gure herrian berri samarra dela esan dezakegu eta, sorreraren zergatia ez badakigu ere, susmoa da beharbada koadrilaren batek sortuko zuela inork ez zedin ordaindu gabe gera. Izan ere, koadriletan, handietan batez ere, beti izaten da bat edo beste "eskakeatzen" dena, eta, egun batean edo bitan errondarik ez ordaintzeagatik ezer gertatzen ez bada ere, azkenerako aspertu egiten zara "espabilatuari" ordaintzen. Potea jarraraziz, egoera gogor samarrak sahiesten dira, inori ezer aurpegiratu beharrik gabe.



El bote o fondo es un dinero que pone una cuadrilla para ir de bar en bar. Todos ponen la misma cantidad y en algunas cuadrillas siempre lo lleva la misma persona; en otras, en cambio, se hace por turnos.
Aunque es una costumbre muy extendida, podemos decir que es bastante nueva en nuestro país, y aunque no sabemos cómo surgió, probablemente la haya instaurado alguna cuadrilla para evitar que nadie se quede sin pagar. En las cuadrillas, sobre todo en las grandes, siempre hay alguno/a que anda escaqueándose, y aunque no pasa nada por no pagar alguna ronda un día o dos, al final uno se aburre de pagarle al "espabilado/a". El bote sirve para evitar éstas situaciones, a veces bastante incómodas, sin tener que echar nada en cara a nadie.

## 2.7. Erantzunak • Soluciones

**1.** *(pág. 36. or.)*

**2.** *Bai, segituan egingo dizut kontua.*
**4.** *Hartu, eta eskerrik asko!*
**1.** *Aizu, barkatu, kobratuko didazu, mesedez?*
**3.** *Ea, bada, bi garagardo eta bi bokadilo... 8,70 €.*
**5.** *Zuri. Agur!*

**2.** *(pág. 36. or.)*

| | |
|---|---|
| E | Zentimo bat |
| M | Bi zentimo |
| D | Bost zentimo |
| L | Hamar zentimo |
| H | Hogei zentimo |
| Ñ | Berrogeita hamar zentimo |
| C | Euro bat |
| N | Bi euro |
| I | Bost euro |
| F | Hamar euro |
| G | Hogei euro |
| A | Berrogeita hamar euro |
| J | Ehun euro |
| B | Berrehun euro |
| K | Bostehun euro. |

**3.** *(pág. 37. or.)*

**a.** Bederatzi euro eta laurogeita hamar zentimo.
**b.** Sei euro eta laurogei zentimo.
**c.** Zortzi euro eta berrogei zentimo.

**4.** *(pág. 37. or.)*

**1.**c/ **2.**a / **3.**b / **4.**d

### ERREPASOA:

**A.** *(pág. 42. or.)*

**1.** 1, 75
**2.** 4, 30
**3.** 15, 20
**4.** 12
**5.** 27
**6.** 18,50

**B.** *(pág. 42. or.)*

**1.**c / **2.**e / **3.**a / **4.**d / **5.**b

**C.** *(pág. 42. or.)*




